

2002ko IRAILAren 30eko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, bi mila eta biko irailaren hogeita hamarrean, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ana Ederra Irurzun, Antton Balerdi Garmendia, Nerea Altuna Zubeldia, Lontxo Goikoetxeaundia Martinez, Xabier Balerdi Urdampilleta; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA:

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

2.- APEZTEGIA ETXEAREN ERRENTA BERRESKURAPENA ETA SALMENTA ENKANTE PUBLIKOAN EGITEKO BALDINTZA PLEGUEN ONARPENA

APEZTEGIA ETXEAREN ERABILPENA ARAUTZEN DUEN ALOKAIRU KONTRATUAREN BALIOGABETZEA

GAIA.- Felicitas Goikoetxea Goikoetxea Andreak eta Lizartzako Udalak, Apeztegia etxearen erabilpena arautzen duen alokairu kontratuaren baliogabetzea.

AURREKARIAK:

IKUSIZ.- Felicitas Goikoetxea Goikoetxea Andreak, Lizartzako udalarekin Apeztegia etxea, bere etxebizitza bezala erabiltzeko duen alokairu hitzarmena.

IKUSIZ.- Felicitas Goikoetxea Goikoetxea Andreak, orain dela urte batzuk, ez dela Apeztegia etxean bizi, bere bizilekua Tolosan, Barrena Kalea, 3 – 5.a A-n duelarik, Lizartzako eraikuntza hutsik mantenduz, eta ez duela beraz alokairuaren xedea betetzen:

GERTAKARIAK:

- 1.- Hirilurren alojeraren legearen arabera, maizterrak eraikina etxebizitza bezala ez erabiltzeak, errentamendu-kontratuaren balioagabetzea dakarrela.
- 2.- Felicitas Goikoetxea Goikoetxea Andreak, urte batzuk daramatzala etxe horretan bizi gabe, bere bizilekua beste leku batean finkatuta duelarik, eta Lizartzako Udalak, eraikuntza horren beharra duela, lehiaketa publiko baten bidez besteganatzeko.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK:

- 1.- 29/1994ko Hirilurren Alogeraren Legearen 27.2 f) artikulua eta 40/1964 legearen 62.3 artikulua.
- 2.- 30/1992 Legeko 78 eta hurrengo artikulua, Administrazio Publikoen Araubide Juridiko eta Administrazioaren Prozedura Arruntari buruzko Legea (E.A.O).
- 3.- Toki Erregimenaren Oinarri Legearen 21.1 k) artikulua.

ERABAKIA:

Lehenena.- Felicitas Goikoetxea Goikoetxea Andreak eta Lizartzako Udalak, Apeztegia etxea alokatzeko zuten errentamendu-kontratua baliogabetzea.

Bigarrena.- Felicitas Goikoetxea Goikoetxea Andreari, hamabost egunetako epea ematea, etxe barruan izan ditzazken ondare edo gainontzeko gauza guztiak atera ditzan. Honela egiten ez badu, Lizartzako Udalak aterako ditu, ejekuzio subsidiarioan, gastuak interesdunaren gain joango direlarik.

Hirugarrena.- Interesdunari ondorengo jakinaraztea: ebazpen hau jaso eta 10 egunen barru, Udalaren aurrean nahi dituen alegazioak egin izango ahal ditula. Epe hori pasata eta alegaziorik ez balego, akordioa irmoa izango da.

Apeztegia etxearen erabilpena arautzen duen alokairu kontratuaren baliogabetzeko proposamena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

LIZARTZAKO UDALERRIKO ELIZONDO AUZOAN KOKATZEN DEN APEZTEGIA ETXEA LEHIAKETA PUBLIKO BIDEZ BESTERENTZEKO BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN PLEGUA

I.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea LEHIAKETA PUBLIKO bidez udal jabetzako ondasun bat besterentzea da, lehen etxebizitzarako erabiltzeko, eta plegu hauetan zehaztutakoari jarraiki. Ondasuna honako hau da:

APEZTEGIA ETXEA.

Titulua.- Sekuladanikoa. Tolosako Jabetza Erregistroan inskribatuta dago, horrela: 1443. Liburukia, Lizartzako 24. Liburua, 61. Folioa, 1184 Finka, 1. Inskripzioa.

Besterentzearen xedek bi ikuspegi ditu. Bata, herrian dauden eraikuntzak berritzearena da, eraikuntza hauen aintzinako egitura eta osaketa gordez. Horretarako lehiakideak, Udalak ezarritako irizpideen barruan, eraberritzeko proiektua aurkeztu beharko du. Bestea Lizartzako herriak jasaten duen biztanleriaren beherakada gelditzea, horretarako eraikinaren hartzaileak, lehen etxebizitzarako erabili beharko du.

II.- ENKANTERAKO TASA

Enkanterako tasa HIRUROGEITA HAMAHIRU MILA BERREHUN ETA LAUROGEITA BEDERATZI Euro eta LAUROGEITA HAMAZAZPI Zentimo (73.289,97,-) Eurotako da. Tasa hori gorantz hobetu ahal izango da.

III.- JABETZA ESKUALDATZEA

Lizartzako Udalak etxe horren jabetza eta edukitza eskualdatzeko konpromisoa hartzen du. Horretarako, eskritura publikoa egingo da Notarioaren aurrean, ondasuna behin betiko esleitzen denetik hiru hilabeteko epean. Eskritura egiteko, esleipendunak agertu egin beharko du zehaztuko den lekuan, egunean eta orduan.

IV.- BEHIN-BEHINEKO ETA BEHIN BETIKO BERMEA

Ez dago bermerik.

V.- GASTUAK

Esleipendunak enkanteari dagozkion iragarkiak ordaindu beharko ditu, bai eta enkantearen xede den eraikina berari eskualdatzeko ordaindu beharreko zergak ere.

VI.- BALDINTZA BEREZIAK

- 1.- Esleipendunak, udalak ezarritako irizpideen barruan, Apeztegia Etxearen Eraberritze Proiektua aurkeztu beharko du, proiektuaren gastuak bere kontura izango direlarik.
- 2.- Esleipendunak, Udalak onartutako proiektuaren obrak bere kargu hartu beharko ditu.
- 3.- Esleipendunak eraikina etxebizitzarako erabiliko du, eta bere ohiko etxebizitza izango da.

VII.- ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZAK ETA PROPOSAMENAK AURKEZTEKO IRAGARKIA BIAK BATERA JARRIKO DIRA JENDAURREAN

Apirilaren 18ko 781/1986 ELDko 122 artikulua 2. Paragrafoak ezarritakoari jarraiki, Administrazio Baldintza Zehatzak eta proposamenak aurkezteko iragarkia ekintza bakarrean jarriko dira jendaurrean. Pleguaren aurkako erreklamazioak aurkezteko, 8 laneguneko epea izango da iragarkia argitaratzen den egunetik.

VII.- ESKAERAK ETA AGIRIAK AURKEZTEA

Epea eta lekua: Proposamenak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztuko dira, eskura. Astelehenetik ostiralera bitartean egin ahal izango da 8:00tatik 14,00etara, eta iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hogeita sei (26) eguneko epean.

Formalitateak: Proposamenak epe barruan aurkeztu beharko dira **2 kartazal itxitan**. Kartazalen kanpoan honakoa idatziko da:

APEZTEGIA ETXEA BESTERENTZEKO LEHIAKETA PUBLIKOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA

1.- kartazala, honako agiriak izango ditu:

- a) Nortasun Agiri Nazionala edo horren fotokopia egiaztatua.
- b) Estatuko Kontratazio Erregelamendu Orokorreko 23. Artikuluan eta horri buruz ezar daitezkeen bestelako xedapenetan adierazitako ezgaitasun eta bateraezintasun arrazoien barruan ez dagoela adierazten duen zinpeko aitortpena.
- c) Beste norbaiten izenean jarduten badu, ahalorde eskritura. Ahalordea legeztatua egongo da, eta abokatu batek (irakurtzeko moduko firma) edo Udaleko Idazkariak askietsiko du.

- d) Merkataritza elkarte bat bada, elkartearen eratze eskritura Merkataritza Erregistroan inskribatuta. Enpresa elkarketa bada, elkarketa hori egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira.
- e) Zerga betebeharretan edo Gizarte Segurantzako betebeharretan egunean dagoela adierazten duen aitortpena, bere ardurapean. Aitortpena agintari judizial, administrazio agintari, notario edo horretarako gaitutako elkarte profesional batean egingo da.

2. kartazala, eskaintza ekonomikoa izango du, honako ereduaren arabera:

Proposamen eredia

“Jn./And.:, adinez nagusia. Helbidea:,
NAN zk.: Bere izenean jarduten du, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialekoko zk.an iragarritako lehiaketaren berri izan dut. Honen bidez lehiaketan parte hartzen du, eta Udalaren jabetzako APEZTEGIA ETXEA ondoren adierazten den prezioan erosteko konpromisoa hartu. Administrazio pleguak osotasunean onartzen ditut, eta horren arabera egiten dut eskaintza:

Eskainitako prezioa: (hitzez eta zenbakiz idatzita)
pezeta.

Halaber, Administrazio Publikoen Kontratuen Legeko 20. Artikuluan ezarritako kontratatzeke debekuen barruan ez nagoela adierazten dut.

Lekua, data eta sinadura”

VIII.- PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak Udaletxean irekiko dira, proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo laneguneko 13:00etan. Hala ere, egun hori larunbata bada, hurrengo egunera arte atzeratuko da.

Kontratazio Mahaiak honako kideak izango ditu:

- Mahai burua: Alkate-Lehendakaria edo horrek bere ordeztzatzen duena.
- Bokala: Ogasuneko Zinegotzia.
- Idazkaria: Udaleko Kontuhartzailea edo horrek bere ordeztzatzen duena.

IX.- ONARTUTAKOEN ETA BAZTERTUTAKOEN ZERRENDA

Eskaeretan adierazitakoa egia dela ziurtatzeko beharrezko diren egiaztapenak egin ondoren, Alkate-Lehendakariak, Kontratazio Mahaiaren proposamenaren arabera, onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda erabakiko du.

Zerrendak udaletxeko iragarki oholean jarriko dira jendaurrean. Eskerak aurkeztu dituztenek erreklamazioa egin ahal izango dute behin-behineko zerrendak onartzen dituen administrazio erabakiaren aurka. Horretarako, hamabost egun izango dituzte jendaurrean egoteko epea amaitzen den egunaren hurrengo egunetik.

Erreklamazioak erabaki ondoren, Alkate-Lehendakariak enkantean onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendak erabakiko ditu. Zerrenda horiek aurreko paragrafoan adierazitako era berean jarriko dira jendaurrean.

X.- KONTRATUA ESLEITZEA

Kontratazio Mahaiak hautatuko du etxebizitzaren esleipenduna. Hori Udaletxeko Areto Nagusian egingo da, horretarako ezarriko den egunean.

Kontratazio Mahaiak Udalbatzari esleipen proposamena igorriko dio. Eta horrek, 30 laneguneko epean, behin behineko esleipena egingo du.

XI.- KONTRATUAREN IZAERA

Plegu hauen xede den salerosketa kontratuak izaera pribatua du, eta honako legeen bidez arautuko da:

- a) Kontratua prestatzeari eta esleitzeari dagokionean Administrazio Baldintza Berezien Plegu hauek arautuko dute, eta hemen aurreikusita ez dagoen guztian honakoek: 7/85 Legea, Toki Jaurbidearen Oinarriak Arautzekoa; 1986ko ekainaren 13ko Legea, Toki Korporazioen Ondasunei buruzkoa; eta 2/2000 Administrazio Publikoen Kontratuen buruzko, ekainak 16ko Legea eta 1098/2001 Erregelamendua, Urriaren 2ko Errege Dekretuak onartua.
- b) Kontratuaren ondorioei eta amaitzeari dagokionean Zuzenbide Pribatuko arauak.

3.- KREDITUZKO KONTU KORRONTEAREN ESKAERA

KREDITU OPERAZIOA

Kontuhartzaileak luzatutako txostenarekin bat datorren, Altxortegiko operazio bat kontzertatzeko osatu den espediente aztertu eta adosturik, eta, Abenduaren 28ko, 39/1988 zenbakidun, Tokiko Hazienda Legearen 52 eta 53 artikulua ikusirik, Udal Batzarrari proposatu zaio:

ERABAKIA

- 1.- Kredituzko Entitate batekin, epe motzerako, LAUROGEITA HAMAR MILA (90.000,00,-) eurotako kreditu bat kontzertatzea, gehienezko HAMABI HILABETETAN kantzelatuko dena, baldintza hauetan:

Interesa: Hiruhilabeteko EURIBOR + 0,20%

Irekiera Komisioa: 0,20%

- 2.- Udaleko Alkate-Lehendakaria den, JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATE Jauna ahalmentzea, behar diren agiriak formalizatzeko.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

4.- AURREKONTUAREN KREDITU ALDAKETA, 2-2002

Lizartzako Udal honen 2002ko Aurrekontuaren barnean Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez izapidetzen den Kreditu-Aldaketarako espedientearen berri eman ondoren.

Idazkari-Kontuhartzaileak jaulkitako txostena irakurri ondoren, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion indarreko araudiari egokitzen zaiola eta, hortaz, bere aldeko txostena ematen baitu.

Onespena proposamena formulatzen duen Ogasun Batzordeak emandako aldeko irizpena irakurririk.

ERABAKI DA:

- 1.- Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko Kreditu-Aldaketarako espedientea onestea, 50.683,39 eurotako zenbatekoaz, espedientearekin batera jasotako egoera-orriskari ageri den kontzeptu eta partiden xehekapen berarekin.
- 2.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da onetsitako Kreditu-Aldaketa Fondoaren Kontuhartzailatza Zerbitzuek Kontabilitatean berehalako ondorioekin isla dezaten.

5.- UDAL ZERGETAKO TASEN ALDAKETA

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEN ZERGAren TRAMO ETA TARIFAK ALDATZEA

Alkateak, hitza harturik, zera dio:

Udal honek onartuak ditu, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zergatik kobratu behar ziren tasak.

2001 urtean onartu ziren tarifa berriak eta, hortik aurrera, urtez urte, urteko IPC.aren %a igotzea erabaki zen.

Abenduaren 27ko 4/1999 Foru Arauaren 11. artikulua, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Tramo eta Tarifak berriak ezarri ditu, 2003 urtetik aurrera aplikatu behar direnak.

Horren arabera, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Tramo eta Tarifak honela geldituko lirateke:

IBILGAILU MOTA	TRAMOAK	TARIFAK
TURISMOAK	9 ZF. Baina gutxiago	25,92
	9tik 11,99 ZF. Bitarte	51,85
	12tik 13,99 ZF. Bitarte	86,37
	14tik 15,99 ZF. Bitarte	120,98
	16tik 19,99 ZF. Bitarte	155,69
	20 ZF. Gorakoak	190,10
AUTOBUSAK	21 eserlektik beherakoak	119,77
	21etik 50 bitartekoak	170,57
	50etik gorakoak	213,22
KAMIOIAK	1000tik kg.ko erabilgarritik beher	60,79
	1000tik 2999 bitartekoak	119,77
	2999tik 9999 bitartekoak	170,57

	9999tik gorakoak	213,22
TRAKTOREAK	16 ZF. Beherakoak	25,39
	16tik 25 bitartekoak	39,94
	25tik gorakoak	119,77
REMOLKE ETA ERDI REMOLKEA.	750tik 1000 bitartekoak	25,39
	1000tik 2999 bitartekoak	39,94
	2999tik gorakoak	119,77
ZIKLOMOTOR EAK		6,35
MOTOZIKLETA K	125 c.c. bitartekoak	6,35
	125tik 250 bitartekoak	10,89
	250tik 500 bitartekoak	21,79
	500tik 1000 bitartekoak	43,54
	1000tik gorakoak	87,08

Ibilgailuen Gainerako Zergaren Tarifa Aldaketa, aho batez onartua izanda.

UDAL UR HORNIDURA TASA

Alkateak, hitza harturik, zera dio:

2000 urtean onartu ziren tarifa berriak eta, hortik aurrera, urtez urte, urteko IPC.aren %a igotzea erabaki zen.

2002 urteko Udal Ur Horniduraren kostuak aztertuz gero, defizitariora dela konturatzen gara.

Hori dela eta, Udal Ur Hornidura Tasaren tarifak era honetan aldatzea, proposatu du:

Erreziboak Guztira: 224

Ura	224 x 36 x 0,16 x 4 =	5.160,96,- Euro
	Bez 7% 361,26,- Euro =	5.522,22,- Euro
Infraestruktura Kanona	224 x 4,93 x 4 =	4.417,28,- Euro
	Bez 16% 706,76 =	5.124,04,- Euro
Kontagailuen Kanona	224 x 1,23 x 4 =	<u>1.102,08,- Euro</u>
GUZTIRA UR ERREZIBOENGATIK SARRERAK		11.748,34,- Euro

GASTUAK – 2001 URTEA

GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA – URA	9.015,18,- Euro
G.U.K. Infraestruktura Kanona	<u>4.695,76,- Euro</u>
GUZTIRA GASTUAK	13.710,94,- Euro

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartu da.

ZABOR ETA HIRI HONDAKIN SOLIDOAK ETXEZ ETXE BILTZEAGATIKO TASA

Alkateak, hitza harturik, zera dio:

2000 urtean onartu ziren tarifa berriak eta, hortik aurrera, urtez urte, urteko IPC.aren %a igotzea erabaki zen.

2001 urteko Zabor eta Hiri Hondakin Solidoak Etxez Etxe biltzeko zerbitzuaren kostuak aztertuz gero, defizitariora dela konturatzen gara.

Hori dela eta, Zabor eta Hiri Hondakin Solidoak Etxez Etxe Biltzeko Tasaren tarifak era honetan aldatzea, proposatu du:

Etxebizitzak habitatuak eta hutsak- Hiruhilabetean	9,26,- Euro
Industriak - Hiruhilabetean	15,43,- Euro

Proposamen hau onartzeak ez du esanahi, Udalak Zabor eta Hiri Hondakin Solidoak Etxez Etxe Biltzeko zerbitzuarekin irabazirik edo kitaturik geratzen denik, zerbitzu hori defizitarioa izaten jarraitzen duelako, kostuak honela gelditzen direlarik:

SARRERAK	
Etxebizitzak 174 x 9,26 x 4	6.444,96
Industriak 10 x 15,43 x 4	617,20
GUZTIRA	7.062,16
GASTUAK GUZTIRA-Mankomunitaterik gabe	8.203,16
GALERA	<u>1.141,00</u>
Mankomunitatea	5.459,55
OSOKO GALERA	<u>6.600,55</u>

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartu da.

6.- HIRILURREN BALIOAREN GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGAREN ODENANTZA FISKAL ARAUTZAILEA

Hirilurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergari buruz, nahiko informazio ez dugunez, hori osatu bitartean, beste bilera batetarako erabakia uztea, aho batez onartu da.

7.- ZERGA ZIURTAGIRIAK INTERNET BIDEZ ESKATZEKO FORU ALDUNDIAREKIN HITZARMENA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUAK ETA LIZARTZAKO UDALAK, ZERGA ALORREKO INFORMAZIOA EMATEKO IZENPETUTAKO LANKIDETZA HITZARMENA

Gipuzkoako Foru Aldundiak agintaldi honetan dituen lehentasunezko helburuen artean, erakundearteko lankidetzaren harremanak areagotzea eta, era berean, Administrazioaren modernizazioa, razionalizazioa eta hobekuntza bultzatzea daude. Alde batetik, herri baliabideen kudeaketa eraginkorra lortu

nahi du eta, bestetik, zerbitzu hobea eskaini nahi dio herritarrari, besteak beste administrazio lanak sinplifikatuz edo tramite batzuk errazago bihurtuz. Dena den, intimitate pertsonalerako nahiz datu pertsonalerako eskubidea babesteko bermeak finkatuko dira.

Bi alderdiek beharrezko deritzote Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak zerga informazioa emateko aldizkako sistema egonkor bat finkatzeari, nork bere helburuak bete ditzan, kontuan hartuz Herri Administrazioen arteko harremanetan behar diren lankidetzaren etalaguntza printzipioak, eta azaroaren 26ko 30/1992 legeak, Herri Administrazio Guztien Zuzenbide Arauen eta Administrazio Jardunbidearenak, 4.1 artikularen c) letran jasotako eraginkortasunari eta herritarrentzako zerbitzuari buruzko printzipioaren arabera.

Sistema horren muina izango da Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak internet bidez zerga ziurtagiriak egitea, Lizartzako Udalak, aurrez eskatuta.

Zerga datuak erabili eta ematean, hainbat muga bete behar dira Datu pertsonalen babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, Zergen Foru Arau Orokorrek 113. artikuluan eta, azkenik, Eskubide eta Bermeei buruzko 1/1998 Legeak jasotakoaren arabera (apirilaren 28ko 44/1998 Foru Dekretuak eta apirilaren 22ko 333/1998 Foru Aginduak egokituta).

Zehazki, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoak, 11. artikuluan dio zilegi izango dela datu pertsonalak hirugarren bati uztea edo ematea, beti ere aurrez interesatua ados badago, horretan atzera egin badezake ere, emailearen eta hartzailearen legezko funtzioekin zuzenean zerrendaturik dauden helburuak betetzeko egiten denean eta interesatua guztiz jakitun denean zertarako erabiliko diren datu horiek edo zein jarduera mota egiten duen informazioa jasoko duenak.

Dena den, Zergen Foru Arau Orokorrek 113.1 artikuluan finkatzen du noiz ez den beharrezkoa interesatuaren baimena datuak ematean:

“Zerga Administrazioak bere eginkizunak betetzean eskuratzen dituen datuak, informeak edo aurrekinak erreserba jitea dute eta bere eskura jarritako zergak edo baliabideak era eraginkorrean ezartzeko baino ez dira erabiliko; ezin izango dira, beraz, beste inori utzi, salbu honako xedez utzi behar direnean:

- a) Auzitegi-tako organoek edo Ministerio Publikoak delitu publikoak ikertzeko eta ekiditeko.
- b) Beste zerga administrazio batzuei laguntza emateko beren eskura dagoen eremuko obligazio fiskalak betearazteko.
- c) Lan Ikuskaritza eta Gizarte Segurantzarekin eta Gizarte Segurantzako kudeaketa entitate eta zerbitzu komunekin batera lan egiteko, Gizarte Segurantzaren kuota sistemari dagokion kotizazio eta dirubilketaren arloko iruzurraren kontrako borrokan, hala nola aipatu sistemaren kontura jasotzen diren laguntzen gorabeherak aztertzeko.
- d) Beste edozein herri administrazioarekin batera lan egitea, fondo publiko eta Europar Batasunetik luzatzen diren diru laguntzak lortzeko edo jasotzeko egiten diren iruzurrak ikertzeko eginkizunetan.
- e) Indarrean dauden legeetara loturik, zenbait ikerketarako antolatzen diren parlamentu batzordeei laguntza ematea.
- f) Adingabekoen eta ezinduen eskubide eta interesak babesteko auzitegi organoei eta Ministerio Publikoari laguntza ematea.
- g) Euskal Autonomia Erkidegoko Kontu Auzitegiarekin lankidetzan aritzea, Gipuzkoako Foru Aldundia fiskalizatzeko eginkizunetan.
- h) Informazioko eskaera judizialerako, berariazko ebazpena behar da, eta horretan ebazpenaz ukitutako interes publiko eta pribatuak alde aurretik neurtu ondoren eta zordunaren ondasunei buruzko azterketa egiteko

gainontzeko baliabide eta iturriak agortu ondoren, Zerga Administrazioari datuak eskatzeko beharizana arrazoituko da.

- i) Estatistika arloan eskumena duten herri administrazioek datuak xede estatistikoekin erabiltzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legeak emandako funtzioak betetzeko. Informazio eskaeran adierazi beharko da zertarako eskatzen diren zerga arloko datuak eta zein diren estatistika lanaren helburu zehatzak. Datu horiek, nolana ere, datu multzokatuen txostenak egiteko erabili beharko dira, eta ezin izango dira banaka gorde”.

Gauzak horrela, bi alderdiek erabaki dute hitzarmen hau sinatzea ondoko klausulen arabera:

KLAUSULAK

LEHENA.- Hizarmen honen helburua Gipuzkoako Foru Aldundia eta Lizartzako Udalaren artean lankidetzaz arautzea da, Gipuzkoako Foru Ogasunaren zerga ziurtagiriak internetez eskuratzeko. Alde batetik, ziurtagiriakaren arloan Zergen Foru Arau Orokorrak 113.1 artikulua apartatua jasotakoaren arabera agindutako funtzioak kudeatzeko egingo dira, kasu horretan interesatuaren baimena beharrezkoa izan gabe. Bestetikren arloan ere funtzio horiek beteko dira, baina, Foru Arau Orokorraren 113.1 artikuluan jasotako inongo kasuetan ez dagoenez, interesatuaren baimen espresua beharrezkoa izango da zerga ziurtagiria egiteko.

BIGARRENA.- Zerga arloko ziurtagiriak Internetez lortzeko, printzipio eta arau hauek bete beharko dira:

1. Datuak hartzailearen funtzio eta eskumenetara egokitzea.
2. Informazioa garrantzitsua eta baliagarria gertatzea bete nahi diren helburuak lortzeko.

3. Datuen eta helburuen artean proportzionaltasuna egotea.
4. Datuak igorri eta horietan sartzeko bideak seguruak izatea.
5. Informazioa jasotzea justifikatzen duten helburuei zorrotz lotzea datuak, zerga informazioa inoi ere erabili gabe interesatuaren edo afektatuaren kalterako.
6. Emandako datuak transferiezinak izatea, hartzaileak berriz ere hirugarrenen esku jarri ez ditzan.
7. Informazio-hartzaileari datuak geroago tratatzeko debekua ezartzea, eragindako pertsonak adostasuna ematen duenean edo legezko baimena dagoenean izan ezik.

HIRUGARRENA.- Zerga arloko ziurtagiriaren eskaeran jaso beharko dira interesatua argi identifikatzeko behar diren datu guztiak eta informazioaren eduki zehatza. Informazio-eskaeran, Administrazio hartzaileak eskatu ahal izango du ziurtagiria bere helbidera bidaltzea, behar bezala kreditutako ordezkariak Ogasun eta Finantza Departamentuko bulegoetan hartzea, edo, bestela, ziurtagiri formala lortzeari uko egin diezaioke uste duenean bere helburuak lortzeko eskatutako informazioa nahikoa izango dela.

Eragindakoaren baimena derrigorrezkoa denean, eskaera horretan jaso beharko da datuak emateko baimen espresua eman dela, atzera egin gabe.

Administrazio hartzaileak ordezkaturako zergadunen baimena dagoela egiaztatuko du Foru Aldundiak.

LAUGARRENA.- Emaileak informazioa emateari uko egin diezaioke, informazioa lehen baldintzan jasotako helburuarekin bat ez

datorenean edo Hitzarmenean jasotako printzipio, arau eta bermeak urratu ditzakeenean.

BOSGARRENA.- Hartzaileari emandako datuen kontrola eta segurtasuna bermatzeko, emaileak honakoak jakinarazi beharko dizkio hartzaileari hitzarmena sinatzerakoan:

- 1.- Erabiltzaile-kudeaketaren eta informazioaren kontrol eta segurtasunaren organo arduraduna.
- 2.- Ziurtagirien eskaera-zerbitzua erabiltzeko baimena eskatzen zaien pertsonen identifikazioa, erabiltzaile-kudeaketaren organo arduradunaren bitartez, bai eta eskaera-baldintzak eta, hala behar denean, aldaketa eta baja proposamena ere.

SEIGARRENA.- Datu emaileak proposatutako segurtasun neurriak abian jarriko ditu hartzaileak, gai hauetan:

- 1.- Erabiltzaileen kudeaketa.
- 2.- Eskaeren aldizkako kontrola.
- 3.- Erabiltzaileen kudeaketa dokumentatzeko arauak.
- 4.- Emaileak segurtasunerako egoki deritzon beste edozein neurri.

ZAZPIGARRENA.- Emaileak onartzen du hartzailearen aukera bere jardura egiaztatzeko, informazioa behar bezala lortu eta erabili duela eta aplikaziozko araudiaren baldintzak edo ohiko baldintzak bete dituela argitu dadin.

ZORTZIGARRENA.- Datuen berri duten hartzailearen menpeko agintari, funtzionario eta langile guztiak behartuta egongo dira datu

horiek erabateko isilpean edukitzera. Informazio emaileak zerga zirutagirien lorpena eten edo mugatu ahal izango du, haiek erabiltzean anomaliak edo irregulartasunak atzematen dituenen edo hitzarmenean jasotakoa betetzen ez denean, kontuan hartu gabe informazio hori oker lortu edo erabiltzeagatik izan daitekeen erantzukizun penal, administratibo eta zibila, eta eragotzi gabe Datuak Babesteko Agentziari edo abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak 41. artikuluan aipatutako Euskal Eutonomia Erkidegoko organoari dagozkion funtzioak.

BEDERATZIGARRENA.- Datuak ematearen xede eta helburutik datozenak ez beste ondoriorik ez du izango hitzarmen honen babesean ematen den informazioak.

Hortaz, ez du ezein eskubiderik edo eskubide espektatibarik sortuko emandako informazioak eraginda gertatzen diren interesatuen alde, eta informazioa lortzea ekarri duten prozeduretan egon daitezkeen eskubide edo obligazioen preskripzioa ez du etengo. Era berean, ematen den informazioak ez du eraginik izango egiaztapen edo ikerketa jarduketetatik edo emandako datuen geroko aldaketatik gerta litekeen emaitzan.

HAMARGARRENA.- Informazio emaileak bere esku izango du informazio gehiago ez ematea edo informazio hori mugatzea, baldin eta agerian geratzen bazaio informazioa jasotzen duen enteko agintari, funtzionario edo gainerako langileek ez dutela informazioa isilpean gordetzeko obligazioa betetzen, datuen sarbideetan edo kontrol erregimenean anomaliak edo irregulartasunak daudela, edota informazioa emateko garaian hitzarmen honen arabera jarraitu behar diren printzipio eta arauak ez direla bete.

HAMAIKAGARRENA.- Hitzarmenak mugagabeko indarraldia izango du, salbu edozein alderdik haren amaieraren gaztigua egiten badu gutxienez hiru hilabete lehenago ondoriorik gabe uzteko proposatzen den eguna baino.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Lizartzako Udalak Zerga Alorreko Informazioa emateko izenpetzeko Lankidetzaren Hitzarmena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

Era berean, Hitzarmen hori sinatzeko, Alkate-Lehendakaria den, Jose Antonio Mintegi Arrate Jaunari, ahalmen guztiak ematea onartu da.

8.- ERREGISTROETAN IDATZIAK AURKEZTEKO, FORU ALDUNDIAREKIN HITZARMENA

Herritarrengana hurbiltzeko neurri egokia izan dadin Herri Zerbitzuen kudeaketari dagozkion eskumenak deszentralizatu eta deskonzentratu egin dira eta horren ondorioz Herri Erakundeetako egitura administratiboa eta gobernua gro eta krapilotsuagoak dira. Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen da elkarlan eta laguntza aktiboan oinarrituz herri Administrazioen arteko harremanak arintzea, herritarrek egin beharreko izapideak errazteko xedez.

Indarrean dagoen legediaren arabera, eta azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazio guztien Zuzenbide arauari eta Administrazio Ihardunbideari buruzkoak, 38.4 artikuluan ezartzen duenez, herritarrek Herri Administrazioei zuzendutako oeskaerak, idatziak eta jakianrazpenak ondoko lekuetan aurkez ditzakete: zuzentzen diren organoei dagokien erregistroan; Estatuko edo autonomi Elkartetako Administrazioeko edozein organoetan; Postetxetan, araudiak agintzen duen eran, eta baita ere estatu espainiarrak atzerrian dituen ordezkariak diplomatikoetan edo kontsuletxeetan. Halaber aurrikusten du Udal Administrazio osatzen duten erakundeetan aurkezteko aukera, baina modu hori eraginkorra izateko hitzarmena sinatu behar dutela adierazten du.

Beraz, aipatu hitzarmen hori sinatu bitartean ezin daitezke aurkeztu Udal Administrazioetako erakundeetan beste administrazio batzuei zuzendutako idatziak, nahi eta haiek izan herritarrengandik hurbilen daudenak. Horren ondorioz, maiz gertatzen da, batez ere herri txikienetan, bertako biztanleek edozein izapide egin ahal izateko herritik kanpo jo behar dutela.

Administrazio sinatzaileek goian aipatutako hitzarmena sinatzea elkarren arteko lankidetzaren eraginkortzat jotzen da, herritarrek egin beharreko izapideak erraztu eta hurbiltzen baititu eta administrazio horiei zuzendutako eskaerak, idatziaketa jakinarazpenak beren organoei dagokien edozein erregistroetan nahiz hauei atxikita dauden edo haien mendekoak diren ente publikoetan aurkez baititzakete.

Lankidetzaren modu berri hori, 30/1992 legeko 38.4 b) artikuluan oinarritutakoa, aurrerapauso garbi da Administrazio sinatzaileek herritarrek administrazioa hurbiltzeko bidean, izan ere aurrerantzean beste komunikazio bide bat irekiko baitzaie Administrazioen egoitzetara joan beharrik gabe edo legeak aurrerantzean dituen gainerako bitartekoak –askotan nekezak direnak– erabili beharrik gabe.

Hitzarmen hau sinatzen dutenen asmoa da zerbitzu publikoak herritarrengana hurbiltzeko lankidetzaren modu berriak aztertzea, elkarlana erregistroetan idatziak jasotze hutsa izan ez dadin, baizik eta, Administrazio bakoitzak ahal duen neurrian, herritarren esku jar dezan Foru Aldundiaren eta Udalen iharduerei buruzko informazioa eta, batez ere, organo eskudunera joan beharrik gabe egin ditzaketen izapideei buruzkoa.

Lankidetzaren hori azkartu eta eraginkortu egingo dela Administrazioen artean –eta baita Administrazioak eta herritarren artean ere, hauek baitira azken finean iharduera publikoaren onuradun eta hartzaileak– informazioa igortzeko bitarteko informatikoak, elektronikoak eta telematikoak ezartzen diren heinean. Horretarako, Lehendakaritza Departamentuak teknika horiek arian-arian ezartzeko elkarlana bultzatuko du.

Aurreko guztiarekin ados daudela eta, beraz, lankidetzaz hitzarmena siantzen dutela ondorengo klausulen arabera:

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Xedea

Lankidetzaz hitzarmen honen xedea zera da: herritarrek hitzarmen hau sinatzen duten administratiboetako organoei nahiz hauei atxikita dauden edo haien mendekoak diren eta nortasun juridiko propioa duten herri Zuzenbideko erakundeei zuzendutako eskaerak, idatziak eta jakinarazpenak sinatzaileen edozein erregistroan aurkezteko baimena ematea.

Bigarrena.- Aurkezpenaren eraginak

Herritarrek aipatu erregistroetan aurkeztutako eskaera, idatzi eta jakinarazpenen datek balio osoa izango dute administrazio sinatzaileetako edozein organoren nahiz hauei atxikita dauden edo haien mendekoak diren eta nortasun juridiko propioa duten Herri Zuzenbideko erakundeen aurrean interesatuek bete beharreko epeetarako.

Nolanahi ere, Herri Administrazio guztien Zuzenbide Arauen eta Administrazio Ihardunbidearen Legeko 48.4 artikulua aurreikusitakoaren arabera, prozedura bat hasteko epeak eskaera organo eskuduneko edozein erregistroan sartzen den egunetik hasiko dira.

Hirugarrena.- Erregistratu eta igortzeko izapideak

1.- Hitzarmen hau sinatzen duten administrazioek lehenengo klausulan adierazitako idatziak onartu eta behar bezala izapidatu beharko dituzte, dokumentuen erregistroei buruzko arauen arabera eta, zehazki, Herri Administrazio guztien Zuzenbide Arauen eta Administrazio Ihardunbidearen Legeko 38. artikulua dioenaren arabera.

- 2.- Dokumentuak, erregistratu ondoren, berehala igorriko zaizkie, hartu eta hurrengo lanegunean beranduena ere, destinatariari. Horretarako, bitarteko egokienak erabiliko dira, ahalik eta azkarren iritsi daitezten eta indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen berme eta eskakizunak bete daitezten.

Dokumentuak bidaltzeko garaian bitarteko egokienak erabiliko dira, ahalik eta denbora laburrena lortu eta indarrean dagoen legediaren arabera berme eta eskakizunak betetzeko xedez.

Zentzu horretan, igortzeko bide informatiko, elektronikoa eta telematikoa erabiltzea bultzatuko da, dokumentuak bidali direla ziurtatu eta egiaztatzen bada.

- 3.- Foru Aldundiko erregistroetan aurkezten diren baina udalei zuzenduak diren idatzi eta jakinarazpenak azken horietako Erregistro Orokorrera igorriko dira zuzenean. Udaletan aurkezten diren baina Foru Aldundiari zuzenduak direnak, bertako Erregistro Nagusira bidaliko dira. Bi Erregistro Nagusi horiek egingo dute idatziak bere hartzaileei bidaltzeko barne izapidea.

Hitzarmen honen eremuan dauden Zuzenbide Publikoko Erakundeei zuzendutako idatzi eta jakinarazpenak dagokien Erregistro okorrera igorriko dira.

Laugarrena.- Erregistroei buruzko informazioa

- 1.- Administrazio sinatzaileek erregistro nagusi eta osagarriari buruz eta jendaurreko egutegi eta ordutegiari buruzko informazioa trukatu dute elkarren artean. Informazio hori urtero berrituko da, eta aldaketarik dagoen bakoitzean ere bai.
- 2.- Era berean, beren erregistroko bulegoen eta hitzarmen honen edo besteren baten bidez hitzartutako bulegoen zerrenda argitaratu eta egunean mantendu beharko dute, Herri Administrazio guztien Zuzenbide Arauen eta Administrazio Ihardunbidearen Legeko 38.8 artikulua dioenaren arabera.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, hitzarmen honen berri emateko, beste administrazio batzuekin sinatzen dituen gainerakoekin bezalaxe, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta prentsan argitaratuko ditu iragarkiak, hamargarren klausulan adierazitakoaren arabera.

- 3.- Halaber, administrazio sinatzaileen Erregistroetako agiriko lekuan administrazio sinatzaileen erregistro bulegoen zerrenda iragarriko da, hitzarmen honen Eranskinean azaltzen den ereduaren arabera.

Bostgarren.- Erregistroen koordinazioa

- 1.- Administrazio sinatzaileek erregistroarteko komunikazioa eta koordinazio sistemak erabiltzea sustatuko dute, idazpenen bateragarritasun informatikoa eta igorpen telematikoa ahalbidetzeko.
- 2.- Aurreko pasartean adierazten diren erregistroarteko komunikazioa eta igorpen telematikoa erabiltzeko neurriak hartu bitartean, administrazio sinatzaileek beren erregistroetako idazpenen zerrenda laburra bidaliko du dokumentuekin batera. Zerrenda hori xedezko erregistroa ere igorriko da, telekopia bidez, dokumentuaren sarrera datatik hurrengo lanegunean, gehienez ere.

Seigarren.- Herritarrentzako informazioa

- 1.- Administrazio sinatzaileek konpromezua hartzen dute beren zeregin eta iharduerei buruzko informazioa elkarren artean trukatzeko, herritarrek eskumena duen administrazioa joan gabe egin ditzaketen izapideak errazteko xedez.

Hala, administrazio sinatzaileen Erregistro Orokor eta Nagusien esku jarriko dira eskabide normaliatuak eta jendeak eskaerak aurkeztu eta izapideak egiteko behar dituztela irizten diren inprimakiak, bereziki, deialdi irekiei

buruzkoak eta administrazio sinatzaileek hasi dituzten eta hedapen zabala eman nahi dituen prozedurei dagozkien kanpainei buruzkoak.

- 2.- Administrazioek konpromezua hartzen dute elkarrean arteko lankidetzari arian-arian aregotzearren neurriak hartzeko, herritarrek egin beharreko era guztietako izapideetarako benetako hurbiltasuna lortzeko xedez. Bide horretan behar diren hitzarmenak sustatuko dira.

Zazpigarrena.- Erregistroak Informatizatzea

- 1.- Administrazio sinatzaileek elkarri jakinaraziko diote beren erregistroak informatizatzeko hartzekoak diren edozein erabaki, bi sistemen arteko bateragarritasunari eragiten badiot, eta konpromezua hartzen dute seigarren klausulako 1. atalean aurreikusten dena benetan gauzatzearren behar diren hitzarmenak sinatzeko.
- 2.- Zazpigarren klausulan aurreikusitako helburuak lortu ahal izateko Gipuzkoako Foru Aldundiak konpromezua hartzen du Erregistroen antolaketa eta informatizazioari buruzko eta administrazioarteko informazioarako bitarteko telematikoki buruzko asistentzia teknikoa eta laguntza eskaintzeko.

Zortzigarren.- Salbuespenak

Hitzarmen honen aplikazio eremutik kanpo geratzen da kontratazioko prozeduretako eskaintzen aurkezpena.

Bederatzigarren.- Iraupena

Hitzarmen honek lau urteko iraupena izango du, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik hasita.

Automatikoki luzatuko da lau urteka, iraungipen data baino gutxienez hiru hilabete aurretik alderdietako batek hitzarmena espreski salatu ezean.

Elkarren artean ados jarrita ere iraungi daiteke; bai eta alderdietako batek bakarrik erabakita, beste alderdiak hitzarmenetik eratorritako eginbeharrak bete gabe larri uzten baditu.

Hamargarrena.- Publizitatea

1.- Hitzarmenaren sinadura eta iraungipena, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko ditu Foru Aldundiak.

Administrazio sinatzaileen Iragarki Tauletan ere argitaratuko dira.

2.- Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta prentsa idatzian argitaratuko ditu hitzarmena honi eta beste administrazio batzuekin sinatzen ditueni buruzko iragarkiak, Udal sinatzaileak ere egokitzen jotzen duen publizitatea egitea eragotzi gabe.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Udal nahiz tokiko administrazioko erakundeen arteko, agirien erregistroari buruzko Lankidetzaren hitzarmena aho batez onartua izan da.

Era berean, Udaleko Alkate-Lehendakaria den, Jose Antonio Mintegi Arrate ahalmentzen da, Hitzarmen hori sinatzeko.

9.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

ARANTXA BALERDI URDAMPILLETA

Uretabarrena Baserriko sabaiako habeak bistara atera, bainugela handitu eta barruko margolana egiteko, baimena eman da.

ALKATEAREN ESKUMENAK AHALORDETZEA

TJOL.ko 21.3 artikulua dioenaren arabera, Alkatetza honek, hainbat eskumen eskuordetzeko ahalmena du.

Lan arrazoiak direla eta, Alkatearen eskumenak eskuordetu behar dira.

Horren arabera, eta TJOL.ko 21.3 eta AIAko 43, 44, 120 eta 121 artikulua ikusirik, ERABAKI DUT:

- 1.- Alkate Ordea den, Ana Ederra Irurzun Andreari, nire eskumenean dauden ahalmen guztiak eskuordetza.
- 2.- Aipatzen den eskuordetza legezatzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da, eta ospatzen den hurrengo Batzarrari jakinaraziko zaio.
- 3.- Alkate Ordea den, Ana Ederra Irurzun Andrea, behartuta gelditzen da, Alkatea itzultzen denean, burutu dituen gestio eta erabaki guztien jakinerazpena egitea, AIA.ko 115 artikulua dioena beteaz.

Ebazpen honetan aurrikusten ez dena, TJOL eta AIA Legeek diotenaren arabera jokatuko da.

JOSE SOROA IBARLUZEA

Txirrita Gudariaren Plaza, 2 – 1.go esk.an leihoak aldatu, sukaldea montatu eta radiadoreak jartzeko, baimena eman da.

FELIX LULUAGA MARITXALAR

Elbarrena kalea, 4 – 2.a esk.an leihoak aldatzeko baimena eman da.

CASTOR OLAETXEA GARAIKOETXEA

Aizpea Baserriko teilatuaren erretila egiteko baimena eman da.

TORRE ETXEAREN BIRRERAIKITZE EGITASMOA

Eskabidea ete teknikariaren txostena ikusirik, eskatzailearen baimenari dagokionez, honako hau ERABAKI DUT:

Espediente honetako eskatzaileari obra handia egiteko baimena EMATEA.

Obra egiteko baimenak balioa izateko, baldintza hauek bete behar dira.

- 1.- Obra aurkeztutako Eraberritze Egitasmoaren arabera egingo da.
- 2.- Obrari dagozkion udal-tasak ordainduko dira.
- 3.- Eraikuntzako ordenantzen arabera egingo da obra.
- 4.- Estalkira irisgarritasuna ahalbideratzen duen irekidura egin behar zela jakinarazten zen oinarrizko egitasmoaren gainean. Jabetzarekin hitz egin ondoren, lorategi aldera dagoen gainbera estalkiarekiko txikia zela ikusirik, teilatura irisgarritasuna horren bitartez bermatuta geratzen dela ziurtatu da.

Baldintza Orokorrak

- 1.- Jabetza eskubidea kontuan hartu gabe ematen da baimena. Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, baimenduna ezingo da baimenaz baliatu eragindako kalteen erantzukizun zibila alderatzeko edo bere gain ez hartzeko.
- 2.- Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberako segurtasun-neurriak bete behar dira.
- 3.- Baimentzen diren obren inguruan, komukazio hari, ur sare edo beste inolako zerbitzu publiko instalakuntzarik egongo balitz, obren berri eman beharko da, Zerbitzu Publikoari kalteek aurrezaintzeko; obrangatik, kalterik gertatuko balitz, ukitutako hirigintz elementuek berregin beharko dira, tokatzen diren gastuak ordainduaz.

4.- Ebazpen hau luzatzeak, ez du ematen inolaz ere, IGOKA behar duten aktitbitate edo establezimenduen irekiera baimenik.

5.- Obrak, aurkeztu eta onartutako ejekuzio proiektuaren arabera burutuko dira, eta hauek hasi aurretik, obrako Zuzendaritza Teknikoaren izendapena egin beharko da. Obren luzapena, 12 hilabetetan irizten da.

Inolako aldaketarik sartu behar balitz, aurrezko adostasuna beharko du.

6.- Obrak bukatu ondoren eraikuntzaren lehen erabilpena aurkeztu behar da honako dokumentazioarekin:

- Obra amaieraren ziurtagiria, obraren benetazko kostoa adierazita.
- Fatxaden argazkia 13 x 18 neurrian atzetik arkitektoak sinatuta.
- Kokapen plano hiri zerbitzuen hartuneak adierazita.
- Obra berri aitopenaren eskrituraren kopia xumea.
- Iberdrolaren Buletina.
- Hiri zergabilketaren alta berria (u-4 orria).

Era berean, adierazten dut, erabaki hau eskatzailearen kontrakoa edo aldekoa izan, eskubidea duela erabakiaren aurka jotzeko. Erabaki honen aurka berraztertze errekurtsoa jar daiteke nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik; beti ere, 30/1992 Legearen 116. artikularen eta hurrengoaren arabera. Horretarako, hilabete bat izango da erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa zuzen-zuzenean jar daiteke, aldez aurretik berraztertzeke errekurtsorik jarri gabe. Bi hilabete izango dira horretarako, dekretu honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

ESTANIS AGIRRE ZABALA

Eskabidea eta teknikariaren txostena ikusirik, eskatzailearen baimenari dagokionez, honako hau ERABAKI DUT:

2002ko Uztailaren 20ko dataz, Pedro Amiama Biurrunek, Zumitza Baserriaren atzekaldean egiten ari zen obra baten berri eman zuen Udaletxean.

Bertara bisitaldia egin ondoren, egindako obrak, baimentzeko modukoak zirela ikusi zen. Hortaz, Estanis Agirreri, obrak geratzeko agindua eman zitzaion ahoz eta, obrak egin ahal izateko Udalean baimen eskaria egiteko esan zitzaion.

2002ko Abuztuaren 2ko dataz, Estanis Agirrek obratako baimen eskaria egin zuen Udalean.

Egin nahi den horma, leku bajeunean 1,00 m-tako altuera du eta lekurik altuenean, terrenoaren gainbehera dela eta, 2.00 m-tako garaiera hartzen du.

Horma guztiz, bere jabetzako lurretan lekutzen da eta berezko jabetzaren mugatik 0,60 m. atzeratzen da ardatzean.

Masako hormigoiez egin dago eta kanpokaldetik harrizko apaindura jarria zaio.

Beraz, guzti hori kontutan hartuta eta, Lizartzako NNSS-ak eta medianeren gaineko Arauak aztertu ondoren, espediente honetako eskatzaileari obrak egiteko baimena ematea.

Era berean, adierazten dut, erabaki hau eskatzailearen kontrakoa edo aldekoa izan, eskubidea duela erabakiaren aurka jotzeko. Erabaki honen aurka berraztertzeko errekurtsioa jar daiteke nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsioaren aurretik; beti ere, 30/1992 Legearen 116. artikulua eta hurrengoaren arabera. Horretarako, hilabete bat izango da erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa zuzen-zuzenean jar daiteke, alde aurretik berraztertzeko errekurtsorik jarri gabe. Bi hilabete izango dira horretarako, dekretu honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATE

Eskabidea eta teknikariaren txostena ikusirik, eskatzailearen baimenari dagokionez, honako hau ERABAKI DUT:

Espediente honetako eskatzaileari obrak egiteko baimena ematea.

Obra egiteko baimenak balioa izateko, baldintza hauek bete behar dira:

2001eko ekainean, bere jabetzako lurretan famili bikoitzeko etxea egiteko baldintza argitzeko eskaria egin zen.

Oraindik, etxea egiteko oinarrizko egitasmoa edo gauzatze egitasmoa aurkeztu ez den arren, Aurre-Egitasmo bat aurkeztu da Udalean.

Egitasmo honen bitartez, etxea lekutu nahi den lekuraino, bere jabetzako terrenotan egin behar duen pista egiteko egin beharreko lur mugimenduak udaran zehar burutu nahi dira.

Pista terreno partikularretik doanez, bide publikoekiko loturak behar bezala egiten direla eta urak ongi bideratzen direla ziurtatu behar da. Beraz, bete beharreko baldintzak honakoak izango dira:

- 1.- Jabetza-eskubidea kontuan hartu gabe ematen da bimena. obra egin bitartean inor kaltetuz gero, biamenduna ezingo da baimenaz baliatu eragindako kalteen erantzukizun zibila alderatzeko edo bere gain ez hartzeko.
- 2.- Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabera segurtasun-neurriak bete behar dira.
- 3.- Baimentzen diren obren inguruan, komunikazio hari, ur sare edo beste inolako zerbitzu publiko instalakuntzarik egongo balitz, obren berri eman beharko da, Zerbitzu Publikoari kalteek aurrezaintzeko; obren gainetik, kalterik gertatuko balitz, ukitutako hirigintz elementuek berregin beharko dira, tokatzen diren gastuak ordainduaz.

 - Plano batetan Herri-bidearekiko non egiten den lotura adierazi beharko da, bisibilitatea, sarrerako kurben radioak, etab. behar bezala adieraziz.
 - Errepidearen zehar eta luzerako ebakidurak ekarriko dira bai eta oinplanuan izango duen trazatua ere.
 - Urak nola jasoko diren eta nora bideratuko diren argituko da.
 - Errepidearen gainazala nolakoa izango den adieraziko da.

- 4.- Etxearen Oinarrizko eta Gauzatze egitasmoan beraz, errepideari dagokion eskatutako informazioa gehituko da.

Era berean, adierazten dut, erabaki hau eskatzailearen kontrakoa edo aldekoa izan, eskubidea duela erabakiaren aurka jotzeko. Erabaki honen aurka berraztertzeko errekurtsioa jar daiteke nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsioaren aurretik; beti ere, 30/1992 Legearen 116. artikulua eta hurrengoaren arabera. Horretarako, hilabete bat izango da erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa zuzen-zuzenean jar daiteke, aldez aurretik berraztertzeko errekurtsorik jarri gabe. Bi hilabete izango dira horretarako, dekretu honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

IÑAKI BENGOETXEA GOGORZA

Txirrita Gudariaren Plaza, 5 –1 b.an Bainuko azulejoak eta sanitarioak aldatzeko baimena eman da, baldintza hauekin:

Obra burutuko den etxea, Babez Ofizialeko erregimeneko etxea da eta bera, errejimen honetan egiten diren etxeetako araudiak bete behar ditu. Araudi honen arabera, etxe hauen banaketa edo distribuzioa ezin da aldatu.

Behin obrak hasi ondoren, hauek ez badira burutzen emandako informazioaren arabera eta fatxadan, egitura edo instalakuntza nagusietan eragina badute, arkitekto batek sinaturiko eta Elkargo Ofizialak bisatutako proiektua eskatuko da obra baimentzeko.

JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATE – JOSE M^a ZEBERIO IBARLUZEA

Eskabidea eta teknikariaren txostena ikusirik, eskatzaileen biamenari dagokionez, honako hau ERABAKI DUT:

Espediente honetako eskatzaileei obra handia egiteko baimena EMATEA.

Obra egiteko baimenak balioa izateko, baldintza hauek bete behar dira:

- 1.- Lzentzia indarrean sartzeko, Gauzatze egitasmoa aurkeztuko da, Arkitekto Elkargoak ikusonetsi ondoren.
- 2.- Erregistroan egindako Lur eremuen Zatikaezineko ziurtagiria aurkeztuko da Udalean.

3.- Estalkira, irisgarritasuna ahalbideratzen duen irekidura egin behar dela jakinarazten da oinarrizko egitasmoaren gainean.

4.- Obrari dagozkion udal-tasak ordainduko dira.

5.- Eraikuntzako ordenantzen arabera egingo da obra.

6.- Lizartzako Laguntzako Arau Subsidiarioetako agindu orokorrak betetzera, baldintzatzea.

Baldintza Orokorrak

1.- Ebazpen hau, hirugarren baten jabetza errespetatu eta horren kalterik gabe luzatzen da.

2.- Jabetza eskubidea kontuan hartu gabe ematen da baimena. Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, baimenduna ezingo da baimenaz baliatu eragindako kalteen erantzukizun zibila alderatzeko edo bere gain ez hartzeko.

3.- Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberako segurtasun-neurriak bete behar dira.

4.- Baimentzen diren obren inguruan, komukazio hari, ur sare edo beste inolako zerbitzu publiko instalakuntzarik egongo balitz, obren berri eman beharko da, Zerbitzu Publikoari kalteek aurrezaintzeko; obrangatik, kalterik gertatuko balitz, ukitutako hirigintz elementuek berregin beharko dira, tokatzen diren gastuak ordainduaz.

5.- Ebazpen hau luzatzeak, ez du ematen inolaz ere, IGOKA behar duten aktitbitate edo establezimenduen irekiera baimenik.

6.- Obrak, aurkeztu eta onartutako ejekuzio proiektuaren arabera burutuko dira, eta hauek hasi aurretik, obrako Zuzendaritza Teknikoaren izendapena egin beharko da. Obren luzapena, 12 hilabetetan irizten da.

Inolako aldaketarik sartu behar balitz, aurrezko adostasuna beharko du.

7.- Obrak bukatu ondoren eraikuntzaren lehen erabilpena aurkeztu behar da honako dokumentazioarekin:

- Obra amaieraren ziurtagiria, obraren benetazko kostoa adierazita.
- Fatxaden argazkia 13 x 18 neurrian atzetik arkitektoak sinatuta.
- Kokapen planoak hiri zerbitzuen hartuneak adierazita.
- Obra berri aitortzearen eskrituraren kopia xumea.
- Iberdrolaren Buletina.
- Hiri zergabilketaren alta berria (u-4 orria).

Era berean, adierazten dut, erabaki hau eskatzailearen kontrakoa edo aldekoa izan, eskubidea duela erabakiaren aurka jotzeko. Erabaki honen aurka berraztertze errekurtsoa jar daiteke nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik; beti ere, 30/1992 Legearen 116. artikuluan eta hurrengo araberan. Horretarako, hilabete bat izango da erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa zuzen-zuzenean jar daiteke, alde aurretik berraztertze errekurtsorik jarri gabe. Bi hilabete izango dira horretarako, dekretu honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamart'erdia direnean.